



## **ERREPIDEKO PROBEN ARAUDIA**

**Data: 2018/12/17**

### **XEDAPEN OROKORRAK**

**1. artikulua.-** Araudi honen bidez, EUSKADIKO TXIRRINDULARITZA FEDERAZIOAK, Arabako, Bizkaiko, Gipuzkoako eta Nafarroako Federazioekin eta haiei atxikitako klubekin eta kirol taldeekin lankidetzan, errepide-txapelketa hauek antolatu eta erregulatzen ditu: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, Euskal-Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa eta Euskadiko Errepide Lehiaketak.

**2. artikulua.-** Araudi hau aplikaziozkoa da nazioarteko (Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuna) edo nazioko (Espainiako Txirrindulari Errege Federazioa) egutegietan jaso gabe dauden errepide-txapelketetan eta Euskadiko Errepide Lehiaketetan, eta probetan parte hartzen duten pertsona guztiak biltzen ditu. Nahitaezkoa da araudi hori ezagutzea, eta ezin da inolaz ere kontrakoa alegatu.

**3. artikulua.-** Araudi honetan jasotako errepide-txapelketetako xedapen partikularrak salbu, txapelketak Espainiako Txirrindulari Errege Federazioaren araudi teknikoetan eta Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren txirrindularitza araudian ezarritakoaren arabera arautuko dira.

**4. artikulua.-** Epaimahai teknikoak, lehenbizi, eta ETxF-k araudia aldatzeko eta haren aplikaziotik eta/edo interpretaziotik eratorritako egoerak eta ezohiko kasuak ebazteko eskubidea du, proba bakoitzeko jarduera-eremuari dagokionez.

### **EGUTEGIA – PROBA PUNTUAGARRIAK**

**5. artikulua.-** ETxF-ren Batzorde Teknikoak hautatuko ditu ETxF-ren txapelketa-egutegia osatzen duten probak, Baldintza Plegua betetzen duten eskaerak aztertu ondoren.

**6. artikulua.-** Araudi honen 1. artikuluan agertzen den lehiaketa bakoitzean, ETxF-ren urteko egutegian inskribatutako probak independenteki puntuatuko dira, proba gisa jasota badaude txapelketa hauetan: Lehendakari Txapelketa, Euskaldun, Euskal Herria, Gaztetxoak eta Emakumeen Euskaldun Txapelketa.

**7. artikulua.-** Klub antolatzaileek beren Lurralde Federazioen bitartez daten proposamenak egingo dizkiote ETxF-ri, Ohiko Batzarra egin aurretik. ETxF-k prestatuko du behin betiko egutegia.

**8. artikulua.-** Justifikatu gabeko arrazoiengatik proba eteten bada, klub antolatzaileak data eta kategoria horretarako lehentasuna galduko du, hurrengo urteetan.

### **PARTE HARTZEKO ETA IZENA EMATEKO BALDINTZAK**

**9. artikulua.-** Errepide-txapelketako probetan, 1. artikuluan adierazitako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulari guztiak parte har dezakete, baita Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunera kidetutako Federazioetako lizentziadunek ere, Araudi honetan adierazitako baldintzak betetzen badituzte, betiere.

Bi talde atzeritarrek parte hartu dezakete, txirrindulari-kopuru berarekin.

Parte hartzaileen adinak mugatzen dira lasterketa burutzen den urtea eta lasterkariaren jaiotze urtearen arteko aldearen bidez.



**10. artikulua.-** Talde bakoitzean, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioak igorritako lizentziarik ez duten Europako Erkidegoaz kanpoko bi (2) korrikalarirekin parte har dezake, gehienez ere. Puntu hori ezin zaie atzerriko ekipoei aplikatu, ezta kadete eta junior kategorietako mutil-taldeei, eta ezta ere orokorrean neska-taldeei.

**11. artikulua.-** ETxF-ren inskripzio-orrietan jasota ez dauden txirrindulariek lizentzia aurkeztu beharko dute, proban izena eman ahal izateko.

**12. artikulua.-** Federazio Autonomiko Homologatuek edo Espainiako Txirrindulari Errege Federazioek igorritako lizentziarik ez dutenek egiaztatu beharko dute Espainian egingo diren txapelketen behar bezala aseguraturata daudela, istripuen eta erantzukizun zibilaren kontra. Horretarako, **agiri ofiziala** aurkeztu beharko dute ETxF-n, euskaraz, gaztelaniaz frantsesez edo ingelesez idatzita.

ETxF-k egoera erregularizatuta duten txirrindularien zerrenda eguneratua emango dio proba bakoitzeko epaimahai teknikoari, eta baldintzak betetzen dituztela egiaztatu ezean, txirrindulariek ezingo dute proban parte hartu.

**13. artikulua.-** Parte hartzerakoan, talde eta txirrindulari guztiek ziurtatu beharko dute Araudi hau errespetatu eta zorroztasunez beteko dutela.

#### **KIROL ZUZENDARIAK**

**14. artikulua.-** Talde bakoitzak bere kirol zuzendaria izango du, eta lizentzia indarrean duela egiaztatu beharko du probaren Epaimahai Teknikoaren aurrean, taldea inskribatzerakoan. Kirol-zuzendaria taldeko kidea eta horren arduraduna da. Epaimahai Teknikoari ematen zaion inskripzioan haren izena agertu beharko da.

Kirol-zuzendari titularra ezin bada proba jakin batera bertaratu, haren ordezkari bereko kide batek jardun dezake. Horretarako, taldekidea (mekanikaria, masajista, etab.) dela egiaztatzen duen lizentzia erakutsi beharko du nahitaez. Ordezkoek titularrek dituzten eskubide eta betebeharrak berdina izango dituzte.

#### **BILERAK ETA TALDEEN AUTOEN ORDENA**

**15. artikulua.-** Bestelakorik xedatu ezean, Epaimahai Teknikoak edo Federazio antolatzaileak edo ordezkariak hala eskatuta, autoen ordena zozketatzeko bilera egingo da, proba bakoitza hasi baino hamabost (15) minutu lehenago, eta taldeko arduradun guztiek bertaratu beharko dira nahitaez.

Laguntza-autoak lasterketan zirkula dezan, taldeak gutxienez hiru (3) txirrindularirekin parte hartu beharko du. Hori ez da aplikaziozkoa izango Gaztetxoak Txapelketan.

Euskadiko txapelketa guztietan, ETxF-k auto-zenbakiak banatuko ditu.

#### **LAGUNTZAK - AUTO NEUTROAK**

**16. artikulua.-** Txirrindulariek beren taldeko autoko edo auto neutro bateko teknikariaren laguntza jaso dezakete, edo, kasuan kasun, lasterketaren amaierako autoarena (erratz-autoak).

Gainera, txirrindulariek beste talde baten autoko teknikariaren laguntza jaso dezake, materialari zein mekanikari dagokienez.

**17. artikulua.-** Auto neutroak behar bezala identifikatu beharko dira, eta auto bakoitzean, gidariaz aparte, mekanikaria egongo da. Probako Epaimahai Teknikoak esleitutako tokian jarriko dira, uneoro, eta parte-hartzaileei gurpilak aldatzen zaizkiela bermatuko dute.

ETxF-ren auto neutroa Nafarroako Foru Erkidegoko proba batera bertaratuko ez balitz, Nafarroako Txirrindularitza Federazioak egiaztatutako autoak ordezkatzeko luke, dagozkion ondorio guztietarako. Horren arduradunak bere gain hartuko ditu ETxF-ko ordezkariari emandako erantzukizunak.



Erratz-autoak aurreko eta atzeko bi (2) gupil-joko izango ditu txirrindularientzat, antolakuntzak emanak.

Txirrindulari batek auto neutroaren edo erratz-autoaren laguntza jaso badu, txirrindulariak edo haren taldeak emandako materiala itzuli beharko du.

#### LIDERRAREN MAILLOTA

**18. artikulua.-** Sailkapen orokor indibidualeko liderrak maillota eraman behar du txapelketaren hurrengo proban.

#### ZENBAKIAK ETA IDENTIFIKAZIORAKO BESTE BALIABIDEAK

**19. artikulua.-** ~~ETx F k emango ditu zenbakiak.~~ Txirrindulariek ~~ETx F k~~ esleitutako zenbakia erabiliko dute - txapelketaren arabera, **ETx F edo beren Lurraldeko Federazioak emandakoa-**, eta zenbakia berdina izango da beti txapelketen probetan zein Euskadiko errepide-txapelketetan.

Zenbaki bakarria ematen bada, ezkerrean jarri beharko da, kontrakoa xedatu ezean.

Kadete eta Junior kategorietako txirrindulariek esleitutako zenbakia eramaten ez badute, zigorra jasoko dute. Errepikatuko balitz, txirrindulariak ez du izango proba horretan ateratzeko baimenik.

**Horretaz gain, txirrindulariei beren identifikaziorako edozein motatako euskarri elektronikoa banatzen bazaie, derrigorrez eraman eta ipini behar dute.**

**2018.12.17**

#### KONTROL AMAIERA

**20. artikulua.-** Helmugara garailea baino hamabost (15) minutu beranduago iristen diren txirrindulariak kontrolez kanpo geratuko dira.

Parte-hartzaile batek ezin badu azken txirrindularientzat aurreikusitako denbora bete edo probaren kontrol-denbora gainditzen badu, txapelketa-gunearen amaiera mugatzen duen ikurrin berdedun ibilgailuak pasatuko du, eta proba utzi beharko du, autoen trafikoa eta probaren bera ez oztopatzeko. Jarraitzekotan, zenbakia kentzea eta trafiko-arauak eta seinaleak betetzea nahitaezkoa da, eta bide-erabiltzaile soila dela iritziko zaio. (Trafikoari buruzko 19/2001 Legearen 6.2. artikulua)

#### INFORMAZIOA LASTERKETAN ZEHAR

**21. artikulua.-** Epaimahai Teknikoko lehendakariaren ibilgailuan, itzuliaren irratia jarriko da (151.700 MHz.), probari buruzko informazioa emateko eta Epaimahai Teknikoak dagozkion argibidean jakinarazi ditzan.

Antolatzaileak izendatuko du itzuliko irratia esataria.

Epaimahai Teknikoak inskripzio ofiziala banatuko die kirol-zuzendariei, irteera eman aurretik. Xedapen hori betetzeko, kirol-zuzendariek nahitaez proba hasi baino hogeita hamar (30) minutu lehenago inskripzioa burututa eduki behar dute.

#### PROTOKOLOA

**22. artikulua.-** Txirrindulari guztiek postuekin, sailkapenekin, ekintzekin eta maillotak jartzeko ekitaldiekin lotutako protokolo-zeremonian parte hartu behar dute nahitaez.

Txirrindulariek lasterketa-arropekin azaldu behar dute protokolo-zeremoniara.

#### LASTERKETA AKTAK

**23. artikulua.-** Proba bakoitzeko Epaimahai Teknikoak Lasterketaren Akta Ofiziala eta inskripzio-orri ofiziala eta sarien eta dieten xehetasunak banatu behar dizkie ETx F-ri eta Lurralde Federazioei, proba burutu eta berrogeita zortzi (48) orduko epean, gehienez ere.



### DOPINAREN AURKAKO KONTROLA

**24. artikulua.-** Edozein probatan egin daiteke, alde zuzenetik ohartarazi gabe. Beraz, ANTOLATZAILE GUZTIEK Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasunaren Araudia betetzen duen lokal bat eduki beharko dute, dopinaren aurkako kontrola egiteko.

### ZIGORRAK

**25. artikulua.-** Zigorrak teknikoak edo diziplinazkoak izan daitezke. Probaren Epaimahai Teknikoak jarriko ditu zigor teknikoak, eta diziplina-organo eskudunak, berriz, diziplinazkoak.

Antolatzaileak sarrietatik kenduko ditu Epaimahai Teknikoak ezarritako zigorrak, eta ETxF-ra transferitu.

Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko Txirrindularitza Araudian ezarritako zigor-taula aplikatuko da, ondoko koadroaren arabera ehuneko murriztailea aplikatuz eta suitzar frankoak urteroko urtarilaren leian duen balioa aintzat hartuz.

ELITE-23 URTEZ AZPIKOAK	JUNIOR/KADETE	EMAKUMEAK
% 25	% 35	% 50

### PROBA BAKOITZEKO TALDE SAILKAPENAK

**26. artikulua.-** Talde bakoitzetik sailkatu diren lehenengo hiru txirrindulariek egindako denboren batura izango da, eta sailkapen onena lortuko du denbora gutxienean egin duen taldeak. Berdinketarik balego, sailkatu diren lehenengo hiru txirrindularien postuak batuta puntu gutxien lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, Denboren Sailkapen Indibidualean posturik onena lortu duen txirrindulariaren taldea sailkapenean aurretik egongo da.

### MENDIKO SAILKAPEN INDIBIDUALA

**27. artikulua.-** Txirrindulari bakoitzak gailur puntuagarrietan lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Gailurren kategoria		
	1.a	2.a	3.a
1.	10	6	3
2.	8	4	2
3.	6	2	1
4.	4	1	
5.	2		
6.	1		

### TARTEKO HELMUGEN SAILKAPEN INDIBIDUALA

**28. artikulua.-** Txirrindulari bakoitzak ezarritako helmugetan lortutako puntuak batuko dira, eta puntu gehien lortu dituen txirrindulariak jasoko du sailkapenik onena. Berdinketarik balego, helmugan sailkapenik onena lortu duen txirrindularia aurretik egongo da sailkapenean.

Postuak	Puntuak
1.	3
2.	2
3.	1

ESPRINT BEREZIETAN, sailkapen-sistema bera erabiliko da.



## SAILKAPEN OROKORRAK

### 29. artikulua

A. Kontrakoa xedatu ezean, txapelketetako sailkapen orokorrak hauei dagokie eskusiboki:

#### 1. Sailkapen orokor indibiduala

1. artikuluan jasotako Federazioek igorritako lizentzia indarrean duten txirrindulariak eta Federazio horietara atxikita dauden taldeetako kideak.

#### 2. Taldekako sailkapen orokorra

Lehiaketa-oinarrien 1. artikuluan jasotako Federazioetara atxikitako taldeak.

### B. Sailkapen orokor indibiduala

Txirrindulari bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.

Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarrietan lehenengo postu gehien lortu dituen txirrindularia sailkapenean aurretik egongo da. Berdinketak jarraitzen badu, azkeneko proban sailkapen onena zeinek lortu duen aintzat hartuko da.

EX-AEQUO kasuetan, txirrindulariak EX-AEQUO hasten deneko postuari dagozkion puntuak jasoko ditu.

### C. Taldekako sailkapen orokorra

Talde bakoitzak proba bakoitzean lortutako puntuen batura izango da.

Puntuetan berdinketarik balego, proba puntuagarrietan lehenengo postu gehien lortu dituen taldea sailkapenean aurretik egongo da, eta berdinketak jarraitzen badu, aintzat hartuko zein taldek egin dituen bigarren postu gehien, eta hirugarrenak, gero. Berdinketak jarraitzen badu, sailkapen orokor indibidualean posturik onena duen taldeko txirrindularia aintzat hartuko da.



## LEHENDAKARI ETA EUSKALDUN TXAPELKETAK

### PARTE HARTZEA

#### 30. artikulua

- Lehendakari saria: 19tik 22 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne.

- Euskaldun txapelketa:

- 19tik 26 urtetara bitarteko txirrindulariak, biak barne.
- Ezohiko baimenak: ETxF-ko Batzorde Teknikoak parte hartzeko ezohiko baimenak eman diezazkieke ETxF-ren edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioaren lizentzia duten txirrindulariei gehieneko adina gainditzen dutenean, baldin eta kasu hauetako batean badaude:

- 1.- Eskatzaileek egiaztatzea beste diziplina batzuetan garrantzia handia duten geroko txapelketetarako prestakuntza dela, hala nola Joko Olinpikoak, Munduko eta/edo Kontinenteko Txapelketak eta Munduko Kopak.
- 2.- Eskatzaileak lehenengo 100 sailkatuen artean egotea dagokien diziplinan, Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko sailkapenean.
- 3.- Eskatzaileak lehenengo 5 sailkatuen artean egotea, azkeneko Ziklokross – ETxF Sailkapenean.
- 4.- Eskatzaileak lehenengo 5 sailkatuen artean egotea, azkeneko BTT XCO – ETxF Sailkapenean.

Txirrindulari horiek ez dute saririk ez dietarik jasoko parte hartzen duten probetan, eta ez dira sailkapen orokor indibidualean azalduko.

- Espainiako Txirrindulari Errege Federazioko taldeek lehenik sailkatu diren bi txirrindularirekin parte har dezakete gehieneko ere, baldin eta Errepideko Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko talde batean parte hartu badute, denboraldi batean edo gehiagoan. Arau horrek ez die profesionalak izan diren Sub-23 txirrindulariei eragiten.

Txirrindularitzaren Nazioarteko Batasuneko Pro-Team taldeetako, talde kontinental profesioaletako edo talde kontinentaletako kideek ezingo dute Errepide-txapelketetan parte hartu.

Bidegabeko parte hartze zein inskripzio balizko ondorengo hauetan, taldeak 20 puntuko zigorra izango du dagokion Txapelketaren taldekako sailkapen orokorrean:

1. Talde batean inskribatutako txirrindulariak parte hartu dutenak hamabi (12) baino gehiago balira.
2. Talde batean inskribatutako txirrindulariak benetan parte hartu dutenak baino gutxiago balira.

Gainera, Parte Hartzeko Pizgarriak – Dietei dagokion (36 Art.), bidegabeko gehitze horren esker taldeak 6 edo txirrindulari gehiago batzen baditu, taldeak lasterketa bateko zigorra jasoko du benetan 6 edo txirrindulari gehiagoekin parte hartu duen lasterketen kopuru osotik.

### SAILKAPEN OROKORRAK

31. artikulua.- Hona hemen proba bakoitzeko puntu banaketa:

Sailkapen orokor indibiduala:

Lehendakari eta Euskaldun Txapelketak

Postuak	Puntuak	Postuak	Puntuak	Postuak	Puntuak
1.	15 puntu	6.	10 puntu	11.	5 puntu
2.	14 puntu	7.	9 puntu	12.	4 puntu
3.	13 puntu	8.	8 puntu	13.	3 puntu
4.	12 puntu	9.	7 puntu	14.	2 puntu
5.	11 puntu	10.	6 puntu	15.	Puntu 1



Horrez aparte, proba Araudi honen 20. artikuluan aurreikusitako epean amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiek puntu bat jasoko dute.

**32. artikulua.-** Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, Lehendakari eta Euskaldun Txapelketetan liderrari dagokion maillota emango diote sailkapen orokor indibidualeko lehenengo sailkatuari, probaren arabera.

Lasterketan maillota jantzita ez daraman sailkapen orokor indibidualeko liderrak 25 puntuko zigorra izango du sailkapen orokor indibidualean, eta 100 euroko isuna.

Txapelketa bakoitzeko amaierako sailkapen orokor indibidualean sartzeko, nahitaezkoa da txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 70an parte hartu izana gutxienez.

**2018.12.17**

#### **Taldekako sailkapen orokorra**

**33. artikulua.-** Puntuak banatzeko, talde bakoitzetik izena eman duten txirrindulariak aintzat hartuko dira, baita proba bakoitzeko taldekako sailkapena ere, modu honetara:

<b>Ekipo bakoitzetik izena eman duten txirrindulariak:</b>		<b>Taldekako sailkapena proba bakoitzean</b>	
11 edo 12 txirrindulari:	7 puntu	1. sailkatua	7 puntu
9 edo 10 txirrindulari:	6 puntu	2. sailkatua	5 puntu
7 edo 8 txirrindulari:	5 puntu	3. sailkatua	4 puntu
6 txirrindulari:	4 puntu	4. sailkatua	3 puntu
		5. sailkatua	2 puntu
		Gainontzeko sailkatuak	Puntu 1

Txapelketa bakoitzeko amaierako taldekako sailkapen orokorrean sartzeko, nahitaezkoa da taldeko 6 txirrindularik edo gehiagok txapelketa horretarako proba puntuagarrien % 80an parte hartu izana gutxienez.

#### **TALDEEN AUTOEN ORDENA**

**34. artikulua.-** Euskadiko eta Nafarroako taldeen autoak ETxF-k alde zuzenetik ezarri duen txandakako ordena jarraituko da. Gainontzeko talde-autoen ordena zozketa bidez erabakiko da.



### SARIAK ETA PARTE HARTZEKO PIZGARRIAK- DIETAK

**35. artikulua.-** Sailkapen ezberdinetan zehaztutako sariak eta/edo garaikurrak esleitzeko, txirrindulariak Araudi honen 20. artikuluan jasotako denboran amaitu beharko du proba.

**36. artikulua.-** Proba bakoitzean, sari eta dieta hauek banatuko dira gutxienez:

PUESTO	TORNEO EUSKALDUN	TROFEO LEHENDAKARI
1°	225 €	225 €
2°	175 €	175 €
3°	150 €	150 €
4°	120 €	120 €
5°	100 €	100 €
6°	75 €	75 €
7°	60 €	60 €
8°	50 €	50 €
9°	45 €	45 €
10°	40 €	40 €
11°	35 €	35 €
12°	35 €	35 €
13°	35 €	35 €
14°	35 €	35 €
15°	35 €	35 €
<b>IP – Dietas*</b>	600 €	600 €
<b>TOTAL:</b>	1815 €	1815 €

\* Parte hartzeko pizgarriak – Dietak

<b>Euskadiko Txapelketak Elite eta 23 urtez azpikoak</b>
18 €-ko 100 dieta

### Parte hartzeko pizgarriak – Dietak:

Proba inskribatu dueneko txapelketaren arabera, antolatzailerak bakoitzak 600 € sartuko ditu txapelketaren funtsean. Denboraldiaren amaieran, txapelketa bakoitzaren funtsa honela banatuko da:

- Funtsearen amaierako zenbatekoaren % 60 proba puntuagarrien % 90ean 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean banatuko da.
- Funtsearen amaierako zenbatekoaren % 40 proba puntuagarrien % 80an 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin parte hartu duten araudi honen 29.A.2. artikuluan aipatuetako taldeen artean banatuko da.

Funtsa bakoitzaren zenbatekoa ETxF-ren gordailuan egongo da.

### AMAIERAKO SARIAK

#### 37. artikulua

#### Sailkapen orokor indibiduala:

Txapelketa bakoitzeko amaierako sariak jasotzeko, txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % **70**an parte hartu behar du gutxienez.

POSTUA	EUSKALDUN TXAPELKETA	LEHENDAKARI TXAPELKETA
1.	750 €	750 €
2.	500 €	500 €
3.	300 €	300 €





**Taldekako sailkapen orokorra**

Txapelketa bakoitzeko amaierako sariak jasotzeko, taldeak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 80an parte hartu behar du gutxienez, 6 txirrindularirekin edo gehiagorekin.

<b>POSTUA</b>	<b>EUSKALDUN TXAPELKETA</b>	<b>LEHENDAKARI TXAPELKETA</b>
<b>1. TALDEA</b>	500 €	500 €

**2018.12.17**



## EMAKUMEEN EUSKALDUN TXAPELKETA

### PARTE HARTZEA

**38. artikulua.-** Emakumeen Euskaldun Txapelketak bi kategoria ditu:

- **Elite:** 19 urte edo adin gehiagoko txirrindulariak
- **Junior:** 17 edo 18 urteko txirrindulariak
- **Kadetea:** 15 edo 16 urteko txirrindulariak

### IBILBIDEAK ETA PROFILAK

**39. artikulua.-** Probek distantzia hauek izango dituzte gehienez ere, kategoriaren arabera:

- **Elite:** 140 km linean, eta 35 km erlojupeko indibidualean.
- **Junior:** 80 km errepidean, eta 15 km erlojupeko indibidualean.
- **Kadetea:** 60 km errepidean, eta 12 km erlojupeko indibidualean.

Erreferentzia gisa, ibilbide lauak izango dira gehienbat, eta igoerek ezingo dute % 8 malda gainditu.

### GARAPENAK

**40. artikulua.-** Hauek dira kategoria bakoitzerako onartutako gehienezko garapenak:

- **Elite:** askea
- **Junior:** 7,93 (52x14)
- **Kadetea:** 6,94 (52x16)

### IRTEERA ORDENA

**41. artikulua.-** Errepideko proben kasuan, aholkatzen da kategorien arabera irtetea, 2 minutuko tartea utzita eta ordena honetan: lehenik, elite kategoriako txirrindulariak; gero, junior mailakoak; eta, azkenik, kadete kategoriakoak.

Edonola ere, kadete kategoriako txirrindulariek irteera beren aldetik hartu behar dute, elite eta/edo junior mailakoen ostean.

### AUTOEN ORDENA

**42. artikulua.-** Euskadiko eta Nafarroako taldeen autoak ETxF-k ezarritako txandakako ordenari jarraituko diote. Gainontzeko taldeetako automobilak zozketa bidez ordenatuko dira.

### SAILKAPENAK

**43. artikulua.-** Proba bakoitzean, kategoriek sailkapen zehatz bakarra izango dute.

### KALIFIKAZIO OROKOR INDIBIDUALAK

**44. artikulua.-** 38. artikuluan aipatutako kategoria bakoitzerako sailkapen orokor indibidual bat ezarriko da.

Kategorietako puntuak honela banatuko dira:

Postua	Puntuak	Postua	Puntuak
1°	10 puntu	6°	5 puntu
2°	9 puntu	7°	4 puntu
3°	8 puntu	8°	3 puntu
4°	7 puntu	9°	2 puntu
5°	6 puntu	10°	Puntu 1



Gainera, proba Araudi honen 20. artikuluan xedatutako denboran amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiek puntu bat jasoko dute.

**45. artikulua.-** Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, protokolo-zeremonian Emakumeen Euskaldun Txapelketaren liderra dela adierazten duen maillota emango diote kategoria bakoitzeko sailkapen orokor indibidualean lehenengo postua duen txirrindulariari.

Era berean, maillota emango diote sailkapen orokor indibidualean 19 eta 22 urte bitartekoen artean lehen postua lortu duenari, liderrak 23 urte edo gehiago baldin baditu.

Lasterketan maillota jantzita ez daraman liderrak 15 puntuko penalizazioa izango du sailkapen orokor indibidualean.

Txapelketa bakoitzeko Amaierako Sailkapen Orokorrean sartzeko, txirrindulariak txapelketa horretarako proba puntuagarrien % 80ean parte hartu beharko du gutxienez.

## SARIAK ETA DIETAK

**46. artikulua.-** Proba bakoitzean sari eta dieta hauek banatuko dira:

POSTUA	KADETE	JUNIOR	ELITE	ELITE/JUNIOR*
1.	--	45 €	160 €	160 €
2.	--	35 €	125 €	125 €
3.	--	25 €	105 €	105 €
4.	--	20 €	85 €	85 €
5.	--	15 €	70 €	70 €
6.	--	--	50 €	50 €
7.	--	--	40 €	40 €
8.	--	--	35 €	35 €
9.	--	--	30 €	30 €
10.	--	--	30 €	30 €
11.	--	--	--	25 €
12.	--	--	--	25 €
13.	--	--	--	25 €
14.	--	--	--	25 €
15.	--	--	--	25 €
PHP –Dietak**	5 €	10 €	--	10 € (Junior)***

(\*) Elite eta Junior baterako partaidetza

(\*\*) Parte hartzeko pizgarriak - Dietak

(\*\*\*) 10 €-ko dietak Juniorrentzako bakarrik. Eliteek dietarik ez.

### **Parte hartzeko pizgarriak - Dietak:**

Kadete mailan, Denboraren araberako Sailkapenean sailkatutako txirrindulari bakoitzeko, bere taldeak 5 € jasoko ditu.

Junior mailan, taldeak 10 € jasoko ditu 6. plazatik aurrera sailkatuta dauden txirrindulari bakoitzeko Juniorrentzako probetan soilik, eta 16. plazatik aurrera Elite eta Junior baterako probetan aldiz.

Parte hartzeko pizgarriak probaren antolatzaileak ekarriko ditu.



#### AZKEN SARIAK

**47. artikulua.-** Txapelketa Amaierako Sariak jasotzeko, nahitaezkoa da txirrindulariak txapelketa horretako proba puntuagarrien % 80an parte hartu izana gutxienez.

POSTUA	19-22 URTEKOAK	23 URTE EDO GEHIAGOKOAK
1.	750 €	750 €
2.	500 €	500 €
3.	300 €	300 €

#### ARTIKULU GEHIGARRIAK

##### **A Artikulu Gehigarria. Junior eta Elite kategorien baterako partaidetzarena**

Hautazkoa da, zeren Antolatzaile bakoitzak askatasunez erabaki ohi du Junior eta Elite korrikalariak baterako proban parte hartuko duten edo ez. Kategoria biren baterako partaidetzaren hipotesi horretan, Antolatzaileak espresuki horren aipamena egin beharko du bere probaren dokumentazioan, horrez gainera ondorengo aginduak kontuan hartu behar izanik:

- Kategoria biek, hau da, Junior eta Elite, une orotan Irteera, Ibilbidea eta Helmuga partekatuko dituzte.
- Baterako probaren gehieneko distantzia 80 Km-koa izango da.
- Juniorrentzako garapena: askea.
- Denboraren araberako Banakako Sailkapena eta Taldeko Sailkapena, probarena, absolutuak izango dira. Hau da, sailkapen bakarra zeinetan korrikalariak elkarrekin azalduko diren, dagozkien lizentzietan azaltzen den euren kategoria alde batera utzita.
- Sarien Baremo absolutua. Hau da, Sarien Baremo bakarra, kategoriarik bereizi gabe. Hala ere, 16. Plazatik aurrera sailkatuta dauden Junior korrikalari guztiek 10 €-ko dieta eskuratuko dute.
- Puntuaren Baremoa, Emakumezkoen Torneo Euskaldunaren Banakako Sailkapen Nagusirako. Independentea kategoria bakoitzerako Errepideko Proben Araudiko 44. Artikulua araberako – EtxF-ko Emakumezkoen Torneo Euskaldunaren.
- Sariak. Minimizatzen dira, Junior lehenengo postua, Elite lehenengo postua, eta 19tik 22 urtera bitarteko lehenengo korrikalaria, garailea 23 urteko edo gehiagoko korrikalaria izango zatekeen kasuan, Denboren araberako Banakako Sailkapen absolutuaren proban.



## EUSKAL HERRIKO TXAPELKETA

### PARTE HARTZEA

**48. artikulua.-** ETxF-k eta Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako gizonetzko Junior lizentzia duten talde eta txirrindulari guztiek parte har dezakete.

Beste federazioetako ekipoek eta/edo txirrindulariek ETxFren baimena beharko dute, parte hartu ahal izateko.

### LASTERKETEN GARAPENA

**49. artikulua.-** Proben garapena gehienez ere 7,93 metrokoa izango da (52x14).

### PARTE HARTZAILEAK IZEN EMATEA ETA KONFIRMATZEA

**50. artikulua.-** Aurre-inskripzioa egitea ez da beharrezkoa. Talde bakoitzeko kirol-zuzendariak parte-hartzaileak inskribatu eta egiaztatuko ditu, proba hasi baino laurogeita hamar (90) minutu lehenago.

Edonola ere, komenigarria da proba hasi baino 48 ordu lehenago aurre-inskripzioa egitea, ETxF-ren bitartez.

### TALDEEN AUTOMOBILEN ORDENA

**51. artikulua.-** Proban parte hartuko duten taldeen automobilen ordena zehazteko, irizpide hauek aintzat hartuko dira:

#### Lehenengo proba.

1. Zozketa egingo da bilerara bertaratu diren taldeen artean.
2. Zozketa egingo da bilerara bertaratu ez diren taldeen artean.

#### Gainontzeko probak.

1. Bilerara bertaratu diren taldeak EUSKAL HERRIA TXAPELKETAREN banakako sailkapeneko lasterketan izen eman duten txirrindularien ordenaren arabera.
2. Bilerara bertaratu ez diren taldeak EUSKAL HERRIA TXAPELKETAREN banakako sailkapeneko lasterketan izen eman duten txirrindularien ordenaren arabera.
3. Bilerara bertaratu diren taldeen arteko zozketa bidez, talde horietako txirrindulariek punturik lortu ez badute.
4. Bilerara bertaratu ez diren taldeen arteko zozketa bidez, talde horietako txirrindulariek punturik lortu ez badute.

### SAILKAPEN OROKORRAK

**52. artikulua.-** Probetako puntuak honela banatuko dira:

#### Sailkapen orokor indibiduala

Postua	Puntuak	Postua	Puntuak	Postua	Puntuak
1°	15 puntu	6°	10 puntu	11°	5 puntu
2°	14 puntu	7°	9 puntu	12°	4 puntu
3°	13 puntu	8°	8 puntu	13°	3 puntu
4°	12 puntu	9°	7 puntu	14°	2 puntu
5°	11 puntu	10°	6 puntu	15°	Puntu 1

Gainera, proba Araudi honen 20. artikuluan xedatutako denboran amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiek puntu bat jasoko dute.



### Taldekako Sailkapen Orokorra

1°	10 puntu
2°	7 puntu
3°	5 puntu
4°	3 puntu
5°	Puntu 1

Amaierako taldekako sailkapen orokorretik kanpo geratuko dira EUSKAL HERRIA TXAPELKETAKO proba guztietan parte hartu ez duten taldeak.

**53. artikulua.-** Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, Euskal Herria Txapelketan liderra dela egiaztatzen duen maillota emango diote sailkapen orokor indibidualeko lehenengo sailkatuari.

Lasterketan maillota jantzita ez daraman liderrak 15 puntuko penalizazioa izango du sailkapen orokor indibidualean.

Txapelketaren amaierako sailkapen orokor indibidualean sartzeko, txirrindulariak Txapelketa horretarako proba puntuagarrien % 80ean parte hartu beharko du gutxienez.

### DIETAK ETA SARIAK

**54. artikulua.-** Proba bakoitzean dieta hauek banatuko dira: 10,00 €-ko 50 dieta.

Proba bakoitzeko antolatzaileak gutxienez sari bat aurreikusi beharko du sailkatutako lehenengo txirrindulariarentzat, eta beste bat sailkatutako lehenengo taldearentzat.



## GAZTETXOAK SARIAK

### PARTE HARTZEA

#### 55. artikulua

- **Gaztetxoak saria– Lehenengo urtea:** 15 urteko txirrindulariak.

- **Gaztetxoak saria– Bigarren urtea:** 16 urteko txirrindulariak.

ETxF-k eta Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako gizonetzko Kadete lizentzia duten talde eta txirrindulari guztiek parte har dezakete.

Beste federazioetako ekipoek eta/edo txirrindulariek ETxFren baimena beharko dute, parte hartu ahal izateko.

### LASTERKETEN GARAPENA

**56. artikulua.-** Proben garapena gehienez ere 6,94 metrokoa izango da (52x16).

### PARTE HARTZAILEAK IZEN EMATEA ETA KONFIRMATZEA

**57. artikulua.-** Aurre-inskripzioa egitea ez da beharrezkoa. Talde bakoitzeko kirol-zuzendariak parte-hartzaileak inskribatu eta egiaztatuko ditu, proba hasi baino laurogeita hamar (90) minutu lehenago.

Edonola ere, komenigarria da proba hasi baino 48 ordu lehenago aurre-inskripzioa egitea, ETxF-ren bitartez.

### AUTOEN ORDENA ETA SOROSPENAK

**58. artikulua.-** Lurralde Federazio bakoitzak ibilgailu neutro bat izango du hiru ekipo bakoitzeko, proban izena eman duten ekipo horietako txirrindulari-kopurua edozein dela ere.

Ibilgailu bakoitzean federazio horretako hiru talde-zuzendari egongo dira.

Laguntza teknikoa emango diete parte-hartzaile guztiei, edozein federaziokoak direla ere. Orokorrean, pelotoiaren atzean joango dira.

Gainera, laguntza teknikoko beste ibilgailu neutro bat joango da. Ibilgailu horretan Lurralde Federazio bakoitzeko kirol-zuzendaria joango da, eta epaimahai teknikoak emandako jarraibideak beteko ditu. Lehiaketa egingo den Lurralde Federaziora kidetutako klub batekoak izango dira ibilgailua eta hura gidatzen duen kirol-zuzendaria.

ETxF-ren auto neutrorik ez badago, ibilgailu hori lasterketaren buruan joango da. Edonola ere, epaimahai teknikoak emandako jarraibideak beteko ditu.

Ibilgailuetako gidariak bertan doazen pertsonak egindako arau-hausteen erantzule izango dira, arau-haustea haren arduragabekeria bati arrazoiz egotz ezin dakiokela eta hark onartu ez duela egiaztatu ezean.

Pelotoiaren atzean doazen arreta-ibilgailuek ETxF-k zozketa bidez aurretik ezarritako Lurralde Federazioko txandako ordenari jarraituko diote.

Pelotoiaren atzeko ibilgailu batek txirrindulari bati arreta eman badio, laguntza teknikoko ibilgailuen ilarako azken postura joango da.

**A.** Laguntza eman dela iritziko zaio ibilgailuan doazenen bertatik atera behar dutenean txirrindulariak.



B. Aurrekoaren ildotik, ez da laguntzatzat joko pelotoiaren atzean txirrindulariak hornitzea edo jantziak martxan jasotzea.

C. Txirrindulariak multzoan erortzen badira eta ibilgailu batek baino gehiagok arreta eman behar badu, lehenengo ibilgailuak emandako arreta soilik hartuko da laguntzatzat. Hortaz, ibilgailu hori auto-ilararen atzean jarriko da, pelotoiaren (edo talde nagusiaren) atzetik.

D. Epaimahai teknikoak eta ETxF-ren ordezkariak ebatziko dituzte ezohiko kasuak.

## SAILKAPEN OROKORRAK

**59. artikulua.-** Probetako puntuak honela banatuko dira:

### Sailkapen orokor indibiduala

Postua	Puntuak	Postua	Puntuak	Postua	Puntuak
1°	15 puntu	6°	10 puntu	11°	5 puntu
2°	14 puntu	7°	9 puntu	12°	4 puntu
3°	13 puntu	8°	8 puntu	13°	3 puntu
4°	12 puntu	9°	7 puntu	14°	2 puntu
5°	11 puntu	10°	6 puntu	15°	Puntu 1

Gainera, proba Araudi honen 20. artikuluan xedatutako denboran amaitu duten txirrindulariek 3 puntu jasoko dituzte, eta proban irten diren txirrindulari guztiek puntu bat jasoko dute.

### Taldeko Sailkapen Orokorra

1°	10 puntu
2°	7 puntu
3°	5 puntu
4°	3 puntu
5°	Puntu 1

Amaierako ekipoen sailkapen orokorretik kanpo geratuko dira Txapelketan dagokien kategorian proba guztietan parte hartu ez duten talde guztiak.

**60. artikulua.-** Proba puntuagarri bakoitza amaitu ostean, Gaztetxoak Txapelketako liderra dela adierazten duen maillota emango diote sailkapen orokor indibidualako lehenengo sailkatuari, protokolo zeremonian.

Lasterketan maillota jantzita ez daraman liderrak 15 puntuko penalizazioa izango du sailkapen orokor indibidualean.

Txapelketa bakoitzeko amaierako sailkapen orokor indibidualean sartzeko, txirrindulariak proba puntuagarrien % 80ean parte hartu beharko du gutxienez.

## DIETAK ETA SARIAK

**61. artikulua.-** Proba bakoitzean dieta hauek banatuko dira: 5,00 €-ko 50 dieta

Proba bakoitzeko antolatzaileak gutxienez sari bat aurreikusi beharko du sailkatutako lehenengo txirrindulariarentzat, eta beste bat sailkatutako lehenengo taldearentzat.





## EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK

### XEDAPEN OROKORRAK

**62. artikulua.-** EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK Euskadiko Txirrindularitza Federazioaren (ETx) jabetza eskusibokoak dira.

**63. artikulua.-** Agiri honek Araudiaren Xedapen Orokorrak osatzen ditu – ETx-ren Errepide Probak.

EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETETARAKO espresuki jasotakoa salbu, kategoria edo sexu bakoitzeko txapelketan edo sarian ezarritakoaren arabera arautuko dira txapelketak.

Emakumeentzako Euskadiko Errepideko Txapelketak – Linea ez ezik, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK ez dira puntuagarriak izango inolako txapelketetan edo saritan.

## **I. GENERO BIETAKO KADETE, JUNIOR, 23 URTEZ AZPIKO ETA ELITE**

### PARTE HARTZEA

**64. artikulua.-** EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETATAN parte har dezakete ETx-k edo Nafarroako Txirrindularitza Federazioak igorritako lehiaketa-lizentzia duten Espainiako txirrindulari guztiek, eta baita ere Ipar Euskal Herrian bizi diren eta Frantziako Txirrindularitza Federazioak igorritako lizentzia duten Espainiako edo Frantziako txirrindulariek.

#### **EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETA: ELITE ETA 23 URTEZ AZPIKOAK**

- Elite eta 23 urtez azpiko kategorietako txirrindulariek batera parte hartuko dute proba bakarrean.
- Bi titulu bereiziko dira, eta, ondorioz, bi sailkapen ere bai: Elite kategoriako txirrindulariak, batetik, eta 23 urtez azpiko kategoriakoak, bestetik.
- Autoen ordena zozketa bidez ezarriko da.
- Ez da adin-mugarik egongo Elite kategoriako txirrindularien kasuan.
- Talde bakoitzak nahi adina txirrindulari izan ditzake.

#### **EUSKADIKO ERREPIDEKO EMAKUME TXAPELKETA**

##### **Errepidean:**

- Hemen adierazitakoez bestelako federazioetako lizentzia duten taldeek eta/edo txirrindulariek parte har dezakete. Dena den, txirrindulari horiek ezingo dute Euskadiko Txapelketetako titulua jaso.
- Bi titulu bereiziko dira, eta, ondorioz, bi sailkapen ere bai: 23 urte edo gehiago dituzten txirrindulariak (Elite), batetik, eta 19 eta 22 urteen bitarteko txirrindulariak (23 urtez azpikoak), bestetik.

##### **Erlojupeko indibiduala:**

- Hemen adierazitakoez bestelako federazioetako lizentzia duten txirrindulariek parte har dezakete, Euskadiko eta Nafarroako taldeetakoak badira. Dena den, txirrindulari horiek ezingo dute Euskadiko Txapelketetako titulua jaso.
- Euskadiko Txapeldunen maillot bana emango zaie 23 urteko edo gehiagoko lehenengo sailkatuari (Elite), eta 19 eta 22 urte arteko lehenengo sailkatuari (23 urtez azpikoak). Lehenengo sailkatua 23 urtez azpikoa denean, Elite kategoriako lehen txirrindulariak ez du maillotik jasoko.

#### **EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETAK: KADETE ETA JUNIOR**

- Aipatutako lurralde-eremuan bizi diren txirrindulariek Txapelketan parte hartu eta Euskadiko txapeldun titulua jaso dezakete, nazionalitate espainiarra edo frantsesa eduki ez arren.
- Kadete kategorian bi Txapelketa egingo dira, data eta leku ezberdinetan: bata lehenengo urteko Kadete kategorian (15 urte), eta bestea, bigarren urteko Kadete kategorian (16 urte).

Erlojupeko indibidualetan, ETx-ko Kirol Saileko zuzendariak beraren Lurralde Federazioak hautatu gabeko hiru (3) txirrindulari aukera ditzake. Txirrindulari horiek Euskadiko txapeldun titulua jaso dezakete.



**PARTE HARTZE TAULA, DIZIPLINEN, GENEROEN ETA KATEGORIEN ARABERA**

KATEGORIA	DIZIPLINA		DIETAK
<b>GIZONAK</b>	<b>LINEA</b>	<b>ERLOJUPEKO INDIBIDUALA</b>	
<b>Elite</b>	Parte-hartze askea	—————	100 x 18 €
<b>23 urtez azpikoa</b>	Parte-hartze askea	Lurralde Federazio bakoitzeko 6	100 x 18 €
<b>Junior</b>	Parte-hartze askea	Lurralde Federazio bakoitzeko 5	50 x 10 €
<b>Kadetea</b>	Parte-hartze askea		50 x 5 €
<b>EMAKUMEAK</b>			
<b>Elite – 23 urtez azpikoa</b>	Parte-hartze askea	Parte-hartze askea	18 € (EI)
<b>Junior</b>	Parte-hartze askea	Parte-hartze askea	10 € (EI)
<b>Kadetea</b>	Parte-hartze askea	(Lasterketa kenduta)	5 € (EI)

**OHARRA:** Emakumezko Euskadiko Lineaz Txapelketetan, sariak Euskaldun Txapelketan bezela



## **II. EMAKUMEZKOEN ETA GIZONEZKOEN MASTER 30, 40, 50, 60**

### **XEDAPEN KOMUNAK: LINEA ETA ERLOJUPEKO INDIBIDUALA**

**65. artikulua.**- Agiri honetan datozen xedapen partikularrez gain, EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEK, Master 30, 40, 50 eta 60 —Scratch emakumezkoak— kategorietan, Espainiako Txirrindulari Errege Federazioko Araudi Teknikoetan ezarritakoa bete beharko dute.

Gutziz debekatuta dago txirrindulari parte-hartzaileei saria eskudirutan ematea. Txapeldunen maillotak, sariak eta/edo dominak bakarrik jasotzeko eskubidea izango dute soilik, hala badagokio eta hemen jasotako baldintzetan betiere.

### **EUSKADIKO ERREPIDEKO TXAPELKETEN BANAKETA**

Kategoria hauetan banatzen dira:

- **Master 30:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 30* kategoria ageri da
- **Master 40:** txirrindulari hauen lizentzietan *Master 40* kategoria ageri da
